

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaz baliatuz, interpelazioaren ondoriozko ondoko mozioa aurkezten du, Berdintasun Legearekin betearazteko neurriak hartzeari buruz:

ZIOA:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko 4/2005 Legearen 26. artikulua dio, debeku dela "pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soilak direla adierazten duen publizitate-iragarki oro egin, eman edo erakustea, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere".

Horri jarraituz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsoriak, ikerketa egin du EAEko hainbat egunkariaren inguruan, 2008ko urteko txostenean. Dioenez, egindako ofiziozko ikerketa guztietan, "zuzeneko diskriminazioa" gertatzen da egunkari guztietan: "*Sexu-arrazoiengatik diskriminazioa egiten du harremanetarako iragarkietan eguneroko edizioetan, emakumeak sexu objektu soil gisa aurkezten dituelako eta emakumearen irudia gure ordenamendu juridikoa urratzen duten mende jartzeko eta azpiratzeko portaera estereotipuei lotuta erabiltzen dutelako*".

Berdintasuneko Legeak berak dio Jaurlaritzaren Kontseiluari dagokiola arau-hauste larri eta oso larriengatik zehazpenak ezartzea, eta Legeak berak zehazten du 26. artikuluekin ez betetzea arau-hauste larria dela.

Horregatik, eta Lehendakariak Legebiltzarreko osoko bilkuran emandako erantzunak ase ez gaituenez, Berdintasun legea betearazteari buruzko, ondokoa aurkezten du:

INTERPELAZIOAREN ONDORIOZKO MOZIOA:

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hilabeteko epean har ditzala behar diren neurriak Berdintasun Legearen 26. artikulua dioena betearazteko.

Gasteizen, 2009ko urriaren 13an

Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar legebiltzar-taldeko bozeramailea